

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an hartutako erabakiaren laburpena: 2020-2021 ikasturtean hainbat esparrutan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia

BDNS(Identif.): 514466

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke:

Lehena. Onuradunak

Aisialdian, kirolean eta tokiko hedabideetan bereziki, euskara sustatzeko programak garatzen dituzten pertsona juridiko pribatuak.

Bigarrena. Helburua

Honako hauek dira deialdi honetan lagunduko direnak:

A multzoa: HABEko erregistroan homologatu gisa ageri diren hiriko euskaltegiek antolatutako ekintzak.

B multzoa: Guraso-elkarteek edo guraso elkarten federazioek antolatutako ekintza edo jarduera ez ohikoak, ikasleei zein gurasoei begira pentsatutakoak eta sentsibilizazioa edo euskara erabiltzeko ohiturak sortzea helburu dutenak.

C multzoa: Oro har, aisialdian edo kirolean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak.

D multzoa: Gasteizko euskarazko tokiko hedabideak sendotzea, euren kalitatea eta irismena hobetuz. Euskara hutsezko hedabideak lagunduko dira, ekimen sozialekoak bereziki.

E multzoa: Urtearen azken lauhilekoan garatzeko egitasmoak, Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan amaituko direnak.

F multzoa: Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskola ofizialki izendatua duten pertsona juridiko pribatuek eskura ditzakete diru-laguntzak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 68.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2020ko irailaren 15 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 3a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTÍBALIZ PEREDA SAGREDO